



# BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

## BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BAO 122. zk. 1996, ekainak 24. Astelehena

— 9457 —

Legazko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BOB núm. 122. Lunes, 24 de junio de 1996

### Laburpena / Sumario

	Orialdea / Página	
I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Adminis- trazioa:	9457	I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia:
— Batzar Nagusiak	—	— Juntas Generales
— Foru Aldundia:	9457	— Diputación Foral:
— Xedapen orokorrak	9457	— Disposiciones generales
— Iragarkiak	9461	— Anuncios
II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Adminis- trazioa	—	II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia
III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Adminis- trazioa	9522	III. Administración Autónoma del País Vasco
IV. Estatuko Administrazio Orokorra	9545	IV. Administración General del Estado
V. Justiziako Administrazioa	9549	V. Administración de Justicia
VI. Bestelako Herri Administrazioak	—	VI. Otras Administraciones Públicas
VII. Beste zenbait	—	VII. Varios

### I. Atala / Sección I

## Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

### Foru Aldundia / Diputación Foral Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

#### Hirigintza Saila

Foru Erabakia, 4/1996 zk., apirilaren 16koa.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 1996.eko martxoaren 26an eginda-  
ko bileran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehenengoa.*—Behin eta betiko onetsiko dira Mungiaiko uda-  
lerriko Plangintzako Sorospidezko Arauak, lurraldearen osoko anto-  
lamenduaren tresna legez; eta ondorik azalduko diren alderdiak  
zuzendu beharko dira:

1.1. Agiri bateginak bere lurralde eremua egokitu beharko du  
gaur egun indarrean dirauen udal mugartearen mugen edura.

1.2. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzor-  
dearen txostenean adierazitakoaren arabera, egoitzetarako gehie-  
nez dagoen eskaintza egokitu beharko da, egin behar diren etxe-  
bizitzak 2.250 baino gehiago izan ez daitezen.

#### Departamento de Urbanismo

Acuerdo Foral número 4/1996, de 16 abril.

La Diputación Foral de Bizkaia, en reunión celebrada el día  
26 de marzo de 1996, adoptó, entre otros, el siguiente acuer-  
do:

*Primero.*—Aprobar definitivamente las Normas Subsidiarias de  
Planeamiento del municipio de Mungia como instrumento de orde-  
nación integral del territorio, debiendo rectificarse los aspectos que  
se indican a continuación:

1.1. El documento refundido deberá adecuar su ámbito terri-  
torial a la delimitación del término municipal actualmente vigen-  
te

2.1. De acuerdo a lo señalado en el informe de la Comisión  
de Ordenación del Territorio del País Vasco, se deberá adecuar la  
oferta máxima residencial, de forma que no se sobrepase la cifra  
de 2.250 nuevas viviendas.

### 1.3. Sistema orokorrak

1.3.1. Erkidegoaren horniduretarako dagoen sistema orokorreko osagaietarako ezarri behar diren hirigintza parametroak atzera hartu behar dira gogoan, bai eta beraien kokagunea ere. Horretara, azalera handia hartzen duten horniduretarako, hala nola, haize ageriko kirol-zelaia etab., gehienez har litekeen aprobetxamendua  $0,2 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -koa izango da. Bestalde, herri barruan, mehelinen artean, dauden horniduretarako (udaletxea, telefonika, ambulatorioa etab.), beste aprobetxamendu, garaiera eta bereizketa batzuk baimendu ahal izango dira, gaur egun daudenen antzekoak direnak.

1.3.2. Soietxeko instalazio militarrek direla eta, Mungia udalerrian baitaude, espedienteak beraiek eraso behar ditu, zelan eta militarren erabilerarako erkidego-hornidurarako sistema orokorraren kalifikazioarekin, Nazioaren Defentsarako Intereseko Alde eta Instalazioei buruzko Araudian adierazitakoaren arabera, otsailaren 10eko 689/1978 Errege Dekretuak onetsi baitzuen, eta Defentsa Ministerioaren ekainaren 4ko 7/1980 Aginduaren arabera (EAO, 1980-VI-13). Izan ere, xedapenok Nazioaren Defentsarako Intereseko Alde eta Instalazioei buruzko martxoaren 12ko 8/1975 Legea, arautzekoa, garatu zuten. Hortaz, zortasuna ezarri beharko da hurreko segurtasuneko alde legez, 300 metrotan, eta hor ezin izango da honelakorik egin aurretik baimenik edukitzean ez bada: obrak, lanak, instalazioak bestelako jarduerak. Hala ere, baimena eman ahal izango da, nekazaritzako zein basoko aprobetxamenduak egiteko, eta ez da beharrezkoa izango baimenik ematea, lehendik dauden instalazioak zein eraikuntzak artatzeko bakarrik egiten diren obrak egiteko.

1.3.3. Instalazioen sistema orokorra osotzen duten osagaietarako, gutxienez, mugetatik bereizten duen parametroa eduki behar izango da, eta hori, gutxienez, proposatu den eraikuntzaren garaierakoa izango da.

### 1.4. Hirilurra

1.4.1. Definiturik dauden unitateetan, bidea erango da, beraiekin dagoen antolamendu xehekatua aldarazteko, zelan eta xehekapen azterlan baten bitartez, eta tipologia eta gehieneko aprobetxamenduari eutsiaz; hori ez ezik, beraietarik baten-baten ezarriko dira, bidezko bada hiriko hainbat espazioen itxuraketa dela eta, nahitaezko gerta litezkeen gehieneko lerrokadurak. Azken parametro horri dagokionez, gutxienezko bereizketak ezarri beharko lirateke eraikuntzen fatxaden artean; beste baldintzarik ez dagoen lekuetan, beraien garaieraren erdia beste izango da.

1.4.2. U-01, U-28 eta U-29 burutzapen unitateetan ezartzen diren mugetan, banean sendoturiko eraikuntzei loturik dauden lurzoru guztiak atera beharko dira, ezik beraiek oinarritzat harturik lortu ziren eraikuntza-eskubideak beraiek eraikitzeko.

1.4.3. U-29 burutzapen unearen antolamendua plan berezi batera bidali beharko da, edo beraren antolamendua testu bateginean sartu, Garraketako sektoreari dagokionez, berez kudeatu ahal izan dadin.

1.4.4. Hiri barruko eta Larrauriko egoitzazko hirilur orokorraren «A araua»n ondokoa kendu beharko da: eraikuntzarako dagoen okupazio handieneko parametroa, eraikuntza har dezakeen lurzati garbiaren %100ekoa alegia; horren ordeaz, hauxe jarriko da: ordeztuko den eraikinaren okupazioa bestekoa izango da; eta lerrokadura berriak berriro doitu ahal izango dira lurzati pribatuaren barruan, zenbait herri-gune erregularizatzeko, baina horrek ez du aprobetxamenduaren gehikuntzarik.

1.4.5. Solairu bat gutxiago izan beharko du Larrauri auzoko U-34 eta U-35 burutzapen unitateetarako egindako proposamenak.

1.4.6. Zabalondoko egoitzazko hiri lurzorurako, dokumentazio grafikoan bezala idatzian eraso beharko da zein den berari ezarriko zaon hirigintza araubidea.

1.4.7. Industriazko hirilurzorua «D-1 araua»n dauden hirigintza parametroak aldarazi beharko dira, eta adierazi beharko da industrialde guztietarako, eraikuntzek gehienez atzeman dezaketena industrialdeen azalera gordinaren %40koa izan-

### 1.3. Sistemas generales

1.3.1. Deberán reconsiderarse los parámetros urbanísticos de aplicación para los elementos integrantes del Sistema General de Equipamiento Comunitario en función de la naturaleza y situación de los mismos. Así, para aquellos equipamientos de gran ocupación superficial, como campos de deporte al aire libre, etc., no deberá superarse un aprovechamiento superior a  $0,2 \text{ m}^2/\text{m}^2$ . Por otro lado, para los equipamientos situados en edificios entre medianeras en el casco urbano (Ayuntamiento, Telefónica, Ambulatorio, etc.), podrá autorizarse unos aprovechamientos, alturas y separaciones similares a las existentes.

1.3.2. Respecto a las instalaciones militares de Soyeches recaentes en el municipio de Mungia, el expediente deberá recogerlas con la calificación de Sistema General de Equipamiento Comunitario Uso Militar. Así mismo, de acuerdo con lo señalado en el Reglamento de Zonas e Instalaciones de Interés para la Defensa Nacional, aprobado por el Real Decreto 689/1978, de 10 de febrero, y Orden del Ministerio de la Defensa 7/1980, de 4 de junio («B.O.E.» 13-06-80), que desarrollan la Ley 8/1975, de 12 de marzo, de Regulación de las Zonas e Instalaciones de Interés para la Defensa Nacional, se deberá establecer una servidumbre como Zona de Seguridad Próxima de 300 metros en la que no podrán realizarse sin la autorización correspondiente, obras, trabajos, instalaciones o actividades de clase alguna. No obstante, se podrán autorizar los aprovechamientos agrícolas o forestales, no requiriendo autorización las obras de mera conservación de las edificaciones e instalaciones ya existentes.

1.3.3. Para los elementos integrantes del Sistema General de Instalaciones deberá al menos contenerse el parámetro de separación a linderos, que será como mínimo igual a la altura de la edificación propuesta.

### 1.4. Suelo urbano

1.4.1. En las unidades de ejecución definidas, se posibilitará modificar la ordenación pomenorizada contenida en las mismas, mediante la figura de un Estudio de Detalle, manteniendo la tipología y el aprovechamiento máximo que se señala, e incluso imponiendo en alguna de ellas, si procede por razones de conformación de determinados espacios urbanos, unas alineaciones máximas que pueden resultar obligatorias. En relación con este último parámetro, debería establecerse unas separaciones mínimas entre fachadas de las edificaciones, en los casos que no hubiera otro tipo de condicionante, deberá extraerse igual a la mitad de la altura de las mismas.

1.4.2. En la delimitación que se establezca en las Unidades de Ejecución U-01, U-28 y U-29, deberán extraerse la totalidad de los suelos vinculados a las edificaciones situadas en su interior que se consolidan, en base a los cuales obtuvieron los derechos edificatorios para su construcción.

1.4.3. La ordenación de la Unidad de Ejecución U-29, deberá remitirse a un Plan Especial, o incorporarse su ordenación en el Texto Refundido, de forma que pueda gestionarse autónomamente con respecto al sector Garraketas.

1.4.4. En la «Norma A - Suelo Urbano Residencial General» del Casco y de Larrauri deberá eliminarse para la edificación existente el parámetro de ocupación máxima de la parcela neta edificable del 100%, precisándose en su lugar que se posibilitará la misma ocupación que la del edificio que se sustituye, pudiendo reajustarse las nuevas alineaciones dentro de la parcela privada, al objeto de regularizar determinados espacios públicos, sin que ello suponga un incremento de aprovechamiento.

1.4.5. Se deberá reducirse en una planta la propuesta de las unidades de ejecución U-34 y U-35 situadas en el barrio de Larrauri.

1.4.6. Para el Suelo Urbano Residencial de Zabalondo deberá recogerse, tanto en la documentación gráfica como escrita, el régimen urbanístico aplicable al mismo.

1.4.7. Se deberán modificar los parámetros urbanísticos contenidos en la «Norma D-1 - Suelo Urbano Industrial», señalándose que para todas las áreas industriales, la ocupación máxima de las edificaciones será como máximo el 40% de la super-

go dela, SI-06, SI-07, SI-17, SI-20 eta SI-25 diren aldeak izan ezik, beraiantzat gehienez ezarrita dagoen okupazioa %50ekoa izango baita; era berean, industrialde guztietarako, gehienezko eraikigarritasuna 0,60 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-koa izango da. Bestalde, gehienera garaiera 10 m eta 12 m-ra murriztu behar dela gailurreraino, ekoizbiderako beharrezkoak diren osagaiak izan ezik. Azkenik, Mugetatik gutxienez egon behar duten lerrokadurak ezarri behar izango dira, eta eurak gutxienez eraikuntzaren garaieraren erdikoak izango dira.

1.4.8. SI-30 industrialdean eraiki daitekeen aldea malda mantsoenetako aldean xedatuko da, haren ipar-ekialdearen muturrean, lurzatiaren gaur egungo topografia ahalik eta gutxien aldarazteko. Halaber, alde horretarako ezarriko da, plan berezia izango baitu, mugakide den lurzoru urbanizaezinetik tarteez egon behar dutela, eta tarte horiek, gutxienez, eraikuntzaren garaiera baestekoak izango direla.

1.4.9. Industrialdeen antolamendu xehekatua eduki behar da, edo barne berrikuntzarako plan berezietara bidali behar da, zeintzuek alde horiek araupetuko dituzten. Horri dagokionez, Zabalondo, Belako eta Trobikako aldeetan dauden industrialdeetarako, antolamenduak Zabalondo, Belako eta Trobikako sektoreetako plan berezietan dagoenarekin koordinaturik egon behar du. Zedarriturik dauden gainerako industrialdeetarako, beraien antolamendua plan berezietara bidali behar da, eta horiek eremu homogeneoak antolatuko dituzte, arauetako industrialdeetarik bat edo batzuk sartzeko. Horri dagokionez, plan berezi horien eremuaren mugak eduki behar dira.

1.4.10. Larrabizkerko hiri lurzoruaren barruan, horretakotzat hartutako lurzatiak sartu behar dira, udalak 1995eko uztailaren 26an erabaki zuen legez.

#### 1.5. Lurzoru urbanizagaia

1.5.1. Larrabizkerko sektoreko plan partzialak bere antolamendu eta zehaztapenak koordinatu behar dira Larrabizkerko hiri lurzoruko barne berrikuntzarako plan berezikoekin.

1.5.2. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako batzordearen 1995eko ekainaren 14ko txostenak dioenez, oro har, etorkizuneko plan partzialetarako, hala egoitzenetarako nola industrialdeetarako, Butroe errekarantz eraikuntzarako 30 m-ko gehienera ezarriko da; Larrauri errekarantz, berriz, 20 metrokoa, urbolada arruntan gehienera mailaren lerrotik zenbatu behar izanaz, baina lurzerrenda horretan urbanizazioko osagaiak sartu ahal izango dira (bidekoak), eta ezin jarri izango dira Butroe errekararen mugako 15 metroko lurzerrendan, ez eta Larrauri errekararen 10 metrokoarekin ere. Eta babesalde hau gune askeen toki sistema izan daiteke.

1.5.3. Belako eta Luisene sektoreetarako zehaztu behar da, beraien eremuan dauden baso mistoak zaindu behar direla, eta lurzoru horiek lagapen azalera legez zedarriturik geldituko direla.

1.5.4. «Zubitzaide» hirugarren mailako lurzoru urbanizagaiaren sektorerako, aprobetxamendu parametroa murriztu behar da, merkataritza erabilerari dagokionez, 0,30 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-ra. Bestalde, pribatiza daitekeen lurzatiaren gehienera okupazioaren parametroa finkatu behar da, eta bera ez da lurzati gordinaren azaleraren %70etik gorakoa izango. Era berean, eraikuntza har dezakeen azalera %10era mugatu behar da, arauetako zedarrituriko gehienera egin litekeen lekuan. Azkenik, gutxienera tarteez finkatu behar dira, eraikuntzaren garaiera bestekoak izango direnak.

#### 1.6. Ondarea

1.6.1. Katalogoan sartu behar dira Mungia arkitektura-ondarearen behin-behineko inbentarioko osagai guztiak; izan ere, inbentario hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gertatu du, eta osagai horiei ezarriko zaie Euskal Kulturaren Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen araubidea.

1.6.2. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako batzordeak ezarritakoaren arabera, Landetxo Goiko baserria eta San Migelgo ermita direnaz bezanbatean, beraien babeserako espe-

ficie bruta de las áreas industriales, a excepción de las áreas referidas como SI-06, SI-07, SI-17, SI-20 y SI-25 para las que se establecerá una ocupación máxima del 50%, así mismo deberá limitarse para todas las áreas industriales la edificabilidad máxima a 0,60 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>. Por otra parte, se deberá reducir la altura máxima hasta un total de 10 metros y 12 metros a cumbre, a excepción de aquellos elementos que sean necesarios para el proceso productivo. Por último deberán imponerse unas alineaciones mínimas a linderos, que sean cuando menos superiores a la mitad de la altura de la edificación.

1.4.8. La zona edificable del área industrial SI-30, se dispondrá en la zona de menores pendientes, situada en el extremo Noreste de la misma, alterando en lo mínimo la topografía actual de la parcela. Asimismo se impondrán para este área, que será objeto de Plan Especial, unas separaciones al suelo no urbanizable colindante, que serán como mínimo, igual a la altura de la edificación.

1.4.9. Deberá contenerse la ordenación pormenorizada de las diferentes áreas industriales, o bien deberá remitirse la misma a diferentes Planes Especiales de Reforma Interior, que regulen las mencionadas áreas. A este respecto se considera que para las áreas industriales situadas en las zonas de Zabalondo, Belako y Trobika, la ordenación deberá estar coordinada con la contenida en los Planes Parciales de los Sectores Zabalondo, Belako y Trobika respectivamente. Para el resto de las diferentes áreas industriales definidas, deberá remitirse su ordenación a diferentes Planes Especiales, que ordenen ámbitos homogéneos, en el que se incluyan una o varias de las áreas industriales definidas en las Normas. A este respecto, se deberá contener la delimitación del ámbito de los mencionados Planes Especiales.

1.4.10. Se deberá incluir dentro del suelo urbano de Larrabizker los terrenos reclasificados como tal según el acuerdo del Ayuntamiento de fecha 26 de julio de 1995.

#### 1.5. Suelo apto para urbanizar

1.5.1. El Plan Parcial del Sector Larrabizker deberá coordinar su ordenación y determinaciones con las del Plan Especial de Reforma Interior del Suelo Urbano de Larrabizker.

1.5.2. Según se señala en el informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de fecha 14 de junio de 1995, se establecerá con carácter general para los futuros Planes Parciales, tanto residenciales como industriales, una línea de edificación máxima hacia el río Butrón de 30 metros y hacia el arroyo Larrauri de 20 metros, a contar desde la línea del nivel máximo de las avenidas ordinarias, si bien en tal franja podrán ser introducidos elementos de urbanización (viario) que no podrán localizarse dentro de una franja de 15 metros colindante con el río Butrón y de 10 metros con el arroyo Larrauri, pudiendo tener esta zona de protección el carácter de Sistema Local de Espacios Libres.

1.5.3. Se deberá precisar para los Sectores Belako y Luisene que las masas de bosque mixto integradas en su ámbito deberán preservarse, quedando definidos dichos suelos como superficies de cesión.

1.5.4. Para el Sector de Suelo Apto para Urbanizar Tercario «Zubitzaide» deberá reducirse el parámetro de aprovechamiento, en cuanto al uso comercial, a 0,30 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>. Por otro lado, deberá fijarse el parámetro de ocupación máxima de parcela privatizable, que no excederá del 70% de la superficie de parcela bruta. Así mismo deberá limitarse al 10% de la superficie construida a aquella donde se posibilita la altura máxima definida en las Normas. Por último deberán fijarse unas separaciones mínimas, iguales a la altura de la edificación.

#### 1.6. Patrimonio

1.6.1. Se incluirán en el catálogo todos los elementos incluidos en el Inventario Provisional de Patrimonio Arquitectónico de Mungia, elaborado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, para los que será de aplicación el régimen derivado de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

1.6.2. De acuerdo con lo establecido por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco por el caserío Landetxo-Goi-koa y la ermita de San Miguel, que tienen incoado expediente para